



AURKEZPENA (LAIko zuzendari orokorra)

Oraindik ere oinarri-oinarrizkoa da laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutza hedatu eta prestakuntza ematea. Horretarako, ezinbestekoa da ahaleginak egitea honako ezparrian: Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren inguruko ezagutza sortzea eta zabaltzea

Zentsu honetan, aurretiaz ARRISKUEN EBALUAZIOA 01 Unitate Didaktikoa argitaratu eta EAEko Heziketa Zikloetako Ikastetxeetara zabaltzeko aukera izan genuen. Oraingoan, beste urrats bat ematea pentsatu dugu eskuartean duzuen bigarren unitate didaktiko hau argitaratuz.

Azken urteotan, Lea Artibai Ikastetxeak hainbat ekimen bideratu ditu lan Arriskuen Prebentzioaren inguruan. Hona beste beste bat. Aspaldi egin genuen Prebentzioaren kultura zabaltzearen aldeko hautua geurean. Gure ikastetxetik igarotzen diren ikasleak, geroko lan-munduko protagonistak, hezitzeaz gain, gizarte osoa segurtasunaren eta prebentzioaren garrantziaz ohartarazteko asmoz, geure ekarpen hau aurkeztu dugu oraingoan.

Gure aldetik, abian jarritako bidean jarraitzekotan gaude eta beharrezkoak diren laguntzak izan ezker, UNITATE DIDAKTIKO berriak garatzen joango dinatke, beti ere, hezkuntza komunitarearen esku uzteko asmoz.

Noelia Barruetabeña
Lea Artibai Ikastetxeko Zuzendari Orokorra

AURKEZPENA (Egilea)

Lan Arriskuen prebentziorako Legeak dioenez, lantokietan laneko segurtasun eta osasuneko seinaleztapen egokia dagoela bermaten behar da, beti ere neurri tekniko, antolakuntza-neurri edota babes-kolektiboen bitartez arriskua erabat ezabatu edo behar beste gutxitzerik ez dagoenean.

Baina,

Zer da seinaleztatu behar dena?

Nola seinaleztatu behar da?

Jakina, LAPeko teknikariek ez dute arazorik izango ager daitezkeen arazoei aurre egiteko baina, nire ustez behintzat, oraindik alor gau ezdago behar beste barneratuta langileen artean eta are gutxiago gizartean, orohar.

ARRISKUEN EBALUAZIOAri BURUZKO 01 Unitate Didaktikoan ezarritako ildo jarraituz,ahalik eta material praktikoena egiten ahalegindu gara oraingoan ere, lanean dauden langileei zein ikasleei zuzenduta. Horretarako, teoria eta horren inguruko hainbat ariketa praktiko elkartu ditugu beste behin ere.

Azkenik, zera nahi nuke azpimarratu: SEGURTASUNeko SEINALEZTAPENA, garrantzitsua izanda ere, ezin da izan enpresaburuak hartzen duen neurri bakarra, izan ere, aurretik, arrisku horiek ekidin edo murrizteko neurriak aplikatu behar baititu. Lantokiko segurtasun-maila hobetzeko balio duen neurri osagarria da


Iñaki Beitia
Lea Artibai Ikastetxeko LAP arduraduna

2. AURKIBIDEA

1. AURKEZPENAK.
2. AURKIBIDEA.
3. **(01) UNITATE DIDAKTIKORA SARRERA.**
4. HELBURU OROKORRAK.
5. ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK.
6. BITARTEKO DIDAKTIKOAK.
7. IRAKASTE-IRAKASTE EKINTZAK.
8. UNITATE DIDAKTIKOAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.
9. HASIERAKO GALDEKETA.
10. **(02) ALDERDI OROKORRAK.**
11. **(03) 485/1997ERERGE DEKRETUA : LANTOKIETAKO SEINALIZAZIOARAKO SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO GUTXIENEZKO XEDAPENEI BURUZKOA.**
12. SEINALIZAZIO MOTAK.
13. SEGURTASUN-KOLOREAK.
14. PANEL ERAKO SEINALEAK.
15. ARGISEINALEAK.
16. HOTS-SEINALEAK.
17. AHOZKO KOMUNIKAZIOA.
18. KEINUZKO SEINALEAK.
19. BESTE SEINALEZTAPENAK.
20. UNITATE DIDAKTIKOAREN EBALUAZIOA: LEHENENGO ZATIA.
21. **(04) SEINALIZAZIOARI BURUZKO BERARIAZKO BESTE ARAUDIAK.**
22. SEINALEAK GASA PRESIOPEAN DUTEN GAS-ONTZIETAN.
23. SEINALEAK HODI INDUSTRIALETAN.

24. MERKANTZIA ARRISKUTSUA GARRAIOETAKO SEINALEAK.
25. SUBSTANTZIA ARRISKUTSUA ETIKETAK.
26. SEINALEAK EROALE ELEKTRIKOETAN.
27. KOLOREAK MAKINETAN.
28. SEGURTASUNeko SEINALEZTAPENARI BURUZKO GALDEKETA (GIDA TEKNIKOA – L.S.H.I.N.)
29. UNITATE DIDAKTIKOAREN EBALUAZIOA: BIGARREN ZATIA.
30. **(05) JARDUEREN EMAITZAK.**
31. LETRA-ZOPEN EMAITZAK.
32. BIBLIOGRAFIA.
33. AGURRA





1

UNITATE DIDAKTIKOA: SARRERA

3. UNITATE DIDAKTIKORA SARRERA



UD 01 Unitate Didaktikoak (ARRISKUEN EBALUAZIOA) izan duen harrera ikusirik argi geneukan bigarren honetan ere jarraitu beharreko ildo.

Oraingoan ere ohiko liburu eredutik aldentzen saiatu gara. Hori baino gehiago izatea nahi dugu, erraminta interaktiboa, non ariketa teorikoak zein praktikotasun handikoak aurkitzen diren, jokoak tartekatuta, egindako lanari bizitasuna emateko helburuz.

Hainbat helburu finkatzen dira, hainbat estrategia metodologiko ezarri, beren beregi landutako baliabide didaktikoak aurkezten dira, hasierako ebaluazioa egiten da jakiteko zein den hasierako maila hori eta amaierako ebaluazioarekin amaitzen da.



4. HELBURU OROKORRAK

Hauek dira lortu nahi diren helburu orokorrak:

HELBURUAK: KONTZEPTUZKOAK

- ❖ Segurtasuneko seinaleztapen-motak ezagutzea.
- ❖ Segurtasun-koloreak ezagutzea.
- ❖ Seinale-mota bakoitzaren esanahia ezagutzea.
- ❖ Seinale-mota ezberdinak ezagutu.
- ❖ Segurtasuneko seinaleztapenak bete beharreko ezaugarriak ezagutu.

HELBURUAK: PROZEDURAZKOAK

- ❖ Seinale-mota ezberdinen bitartez arriskuak identifikatu.
- ❖ Seinaleen interpretazio egokia bermatzeko jarduerak bideratu.
- ❖ Industria alorreko seinaleztapenaren araudia ezagutu.
- ❖ Segurtasuneko seinaleztapenaren erabilera egokia.
- ❖ Segurtasun-oharrak prestatzen ikasi.
- ❖ Lantoki ezberdinetako segurtasuneko seinaleztapena ebaluatu/ikuskatu.

HELBURUAK: JARRERAZKOAK

- ❖ Seinaleztapen-plan egokiaren premia eta beharra dagoela kontzientziatzea
- ❖ Lantokietako arriskuak seinaleztatze gaitasuna.
- ❖ Lana antolatu eta planifikatzeko gaitasuna.

5. ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK

Ikasle batek irakaskuntza metodologian jarraitu beharreko ezaugarri nabarmenenak hauek dira:

- ❖ **ERAKUSKETA BIDEZKO ikasketa:** Ezarritako heziketa edukien idatzizko transmisioa da. Hainbat jarduera daude programatuta. Erakusketa bera eta haren gainean hausnarketa eragiten duten galderak elkartzen dira.
- ❖ **AURKIKUNTZA BIDEZKO ikasketa:** Jarduera batzuetan, aldezturik, ikasleak informazioa bilatu behar izango du planteatzen diren arazoak konpontzen ahalegintzeko.
- ❖ **INSTRUKZIO BIDEZKO ikasketa:** Jarduera teoriko eta praktikoen bidez, ikasleak ikasitakoa praktikan jarri beharko du, eskaintzen zaion material lagungarria erabilia.
- ❖ **PAREKOTASUN BIDEZKO ikasketa:** Hainbat jarduera prestatu dira egoera konkretu bat aztertu eta arazoa konpontzen ikasteko, inguruan benetan egon diren gertaerez baliatuta.
- ❖ **IKERKETA BIDEZKO ikasketa:** Hainbat agertoki errealak zuzen-zuzenean aztertuta, ikasleak bere kabuz ikertu beharko du, eta ondorioak atera.

6. BITARTEKO DIDAKTIKOA

Honako hauek dira aurreikusten diren bitarteko didaktikoak:

- ❖ Seinaleztapen-mota ezberdinak islatzen dituzten ilustrazioak eta argazkiak.
- ❖ Agertoki errealetan jarduerak gauzatzeko galdetegia.
- ❖ Prozesuen kontrolen, operazioen eta bestelakoen zerrendak.
- ❖ Hainbat joko (letra zopak, desberdintasunak bilatu eta abar).
- ❖ Araudien gaineko erreferentziak.
- ❖ Eta abar.



7. IRAKASTE-IRAKASTE EKINTZAK


Hainbat jarduera mota proposatzen dira:

- ❖ **BEREN-BEREGI TEORIKOAK DIREN JARDUERAK.**
- ❖ **JARDUERA AKTIBO-PRAKTIKOAK.**
- ❖ **JARDUERA PRAKTIKOAK AGERTOKI BIRTUALETAN.**

Beste alde batetik, ikaslea egon daitekeen benetako hainbat agertokitan gauzatzeko jarduera praktiko ugari ageri dira, hala nola, tailerrak, laborategiak, garajeak, biltegiak eta beste.



Batzuek pertsona bakoitza lanean jartzea eskatzen dute, eta beste batzuek taldean egin ahal dira, batez ere inguru errealean egiteko pentsatuta dauden jarduerak.



8. UNITATE DIDAKTIKOAREN EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hainbat ebaluazio tresna edo erraminta jaso dira unitate didaktiko honetan:

- ❖ **EBALUAZIOAREN HASIERAKO PROBA.** Helburua zera da, unitatean behin eta berriro agertuko diren kontzeptu garrantzitsuenetako batzuk zenbateraino ezagutzen diren jakitea.
- ❖ **EBALUAZIO ARIKETA PARTZIALAK.** Behin eta berriro agertuko dira unitateko kapituluetan.
- ❖ **AZKEN PROBA.** Unitate didaktikoan jaso diren ezagutzen ebaluazio orokorra jasotzen du.

AUTOEBALUAZIO ariketak dira, hau da, ikasleak berak baino ez ditu gainbegiratuko. Horretarako, unitate didaktikoaren amaieran, ebaluazio ariketa guztien erantzunak jasota geratu dira. Era horretara, ikasleak konparatu egin ditzake eta, horren ondorioz, autokalifikazioa egin.

Amaierako ebaluazioa egiten denean, ikasleari zera proposatzen zaio, ebaluazioko hasierako proba berriro egitea. Zentzuzkoena da bigarren saiakera horretan kalifikazioa nabarmen igotzea, proba egiteko orduan ikasleak beste ikuspegi bat izango duelako.


9. HASIERAKO GALDEKETA

?	Prebentzio neurri bat da eta arriskuen berri emateko, arauak indartu eta gogorarazteko eta, orokorrean, segurtasunezko portaeren alde egiteko erabiltzen dira.
?	Arrisku egoeren berri ematen duten seinaleak dira
?	Gizaki-ahotsaren edo ahots sintetikoaren esku-hartzerik gabe kodifikatutakoak dira, hala nola sirenak, huste- edo sute-alarmak.
?	Ikusgaitasuna hobetu eta edukia nabarmentzeko helburuarekin, segurtasun-kolorea osatzen duen beste kolore bat.
?	Langileen osasun eta segurtasunerako arriskutsua izan daiteke bere propietate fisikokimiko, kimiko edo toxikologikoetatik eta lanlekuan bera erabiltzen edo aurkitzen den moduagatik.
?	Argi-seinaleak material garden edo zeharrargitsuek osatutako gailu batek emititzen ditu; material horiek atzetik edo barrutik argiztatuta daude, halako moldeaz non berez gainazal argitsu bat dela ematen baitu.
?	Seinalean bertan kokatzen den irudia eta egoera bat deskribatu edota betebeharrak bat adierazten duena.
?	Usaimen-seinaleak bezala, kasu berezietan erabiltzen dira hauek ere. Gure ukimen-ahalmenaz baliatuta, ukimen-sentsazio desberdinak nabari ditzakegu azal-motaren arabera.

Unitate didaktikoan buru-belarri sartu aurretik, segurtasuneko seinaleztapenari buruzko galdeketa orokor bat planteatzen dizugu.

Ea argi dituzun hain ezagunak diren kontzeptu hauek. Ahalegindu zaitez ezkerreko zutabea betetzen:

UKIMEN-SEINALEAK	1
ARGI-SEINALEAK	2
SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN ETIKETAK	3
KONTRASTE-KOLOREA	4
SEGURTASUNeko SEINALEZTAPENA	5
HOTS-SEINALEAK	6
BETEBEHARR-SEINALEAK	7
DEBEKU-SEINALEAK	8
OHARTARAZPEN-SEINALEAK	9
PIKTOGRAMA	10



2

ALDERDI OROKORRAK

10. ALDERDI OROKORRAK

Egunero egiten ditugun jarduera askotan, era batera edo bestera, seinaleak erabili ohi ditugu.

Adibide argia hirian zehar dabilzan automobilen eta oinezkoen zirkulazioa da. kale-zirkulazioaren komunikazio-kodeak SEINALE OPTIKOETAN eta HOTS-SEINALETAN oinarritzen dira.



LAN-MUNDUKO SEINALEEK ERE ANTZEKO HELBURUA DUTE.

Unitate didaktiko honen bitartez, segurtasuneko-seinaleztapena zein industria alorreko seinaleztapenaren inguruko atal garrantzitsuenak jorratuko dira.



10. 1. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO SEINALEZTAPENAREN DEFINIZIOA

Laneko segurtasun eta osasunaren **definizioa** argi izatea hasieratik komeni da. Horretarako **485/1997 Errege Dekretuan** agertzen dena hartuko dugu oinarritzat.

1. JARDUERA. Hitzak dagozkion lekuetan kokatzea eskatzen zaizu eta definizioa irakurtzeko moduan egongo zara.



“Objektu, jarduera edo ____ (1) ____ jakin batek lanerako segurtasun eta osasunari buruzko aholku edo betebeharraren berri emango duen seinaleztapena behar du. Horretarako, panel, ____ (2) ____, argizko edo soinuak seinale, ____ (3) ____ komunikazio edo keinuzko seinale bat erabiliko da, kasu bakoitzean ____ (4) ____ dena”.

1		2		3		4	
Egoera	A	Kolore	A	Idatzizko	A	Okerrena	A
Zeregin	B	Altzairu	B	Zaratazko	B	Egokiena	B
Istripu	C	Ikur	C	Ahozko	C	Garestiena	C

Dena den, aipatutako definizio horrez gainera badago, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak (LSHIN-INSHT) argitaratutako **GIDA TEKNIKOAN** bigarren definizio bat ere.

2.JARDUERA. Jarduera honen bitartez bigarren definizio hau jorratuko dugu. Hitzak dagozkion lekuetan kokatzea eskatzen zaizu eta definizioa irakurtzeko moduan egongo zara.



“Segurtasuneko seinaleztapen moduan ulertzen dira ____ (A) ____ baten arduna baldintzatzen duten bultzagarriak, azpimarratu nahi diren inguruabar batzuen aurrean jasotakoak horiek. Prebentzio neurri bat da eta ____ (B) ____ berri emateko, arauak indartu eta gogorarazteko eta, orokorrean, segurtasunezko ____ (C) ____ alde egiteko erabiltzen dira”.

1		2		3	
Langile	A	Arriskuen	A	Oharren	A
Pertsona	B	Sariaren	B	Portaeren	B
Emakume	C	Debekuaren	C	Oztopoen	C

10. 2. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO SEINALEZTAPENAREN ERABILERA.

SEGURTASUNEKO SEINALEZTAPENA, garrantzitsua izanda ere, ezin da izan enpresaburuak hartzen duen neurri bakarra, izan ere, aurretik, arrisku horiek ekidin edo murrizteko neurriak aplikatu behar baititu.



LANTOKIKO SEGURTASUN-MAILA HOBETZEKO BALIO DUEN NEURRI OSAGARRIA DA.

485/1997 ERREGE DEKRETUAK, beste araudi berezietan espezifiki erabakitakoa alde batera utzi gabe, **laneko segurtasun eta osasuneko seinaleak jartzea jasotzen du**, eta horiek beti erabili beharko dira, dauden arriskuen, aurreikus litezkeen larritasuneko egoeren eta hartutako prebentzio neurrien azterketak agerian uzten badu **honako hauek beharrezkoak direla**:

- Langileei ohartaraztea, debeku eta betebeharrak jakin batzuk daudela.
- Langileak erne jarraztea premiazko babes edo ebakuazio neurriak hartzea eskatzen duen larrialdi jakin bat gertatzen denean.
- Modua ematea langileei errazago aurki eta identifika ditzaten babes, ebakuazio, larrialdi edo lehen laguntzetarako bitarteko edo instalazio jakin batzuk.
- Zeregin arriskutsu jakin batzuk egiten dituzten langileei argibideak edo jarraibideak ematea.




SEGURTASUNEKO SEINALEZTAPENA ez da izango neurri tekniko, antolakuntza-neurri edota babes-kolektiboen ordezkari, eta neurri horien bitartez arriskua erabat ezabatu edo behar beste gutxitu ezin denean erabiliko da.

Ez da izango ere segurtasun eta osasun alorreko prestakuntza eta informazioaren ordezkari.

Beharrezkoa denean, lanlekuetan **segurtasun eta osasunerako seinaleztapen egokia egon dadin**, enpresaburuak neurriak hartuko ditu.

Dena den, seinaleak ezartzearen inguruko **erabakia hartu aurretik, hainbat alor azertu behar dira**, besteak beste:

- ❖ Seinaleak jartzeko premia.
- ❖ Seinale egokien aukeraketa.
- ❖ Seinaleak erostea.
- ❖ Erabileraren ingurukoak arautzea.
- ❖ Seinaleak kokatzea.
- ❖ Mantentze eta ikuskatze plangintzak zehaztea.



10. 3. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO SEINALEZTAPENAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Eraginkorrak izan daitezzen eta beren prebentzio-helburua bete dezaten, seinaleak honako **BALDINTZOK BETE BEHARKO DITUZTE**:

- Seinalea jasotzen duenaren arreta erakarriko dute.
- Mezua behar den besteko aurrerapenaz adieraziko dute.
- Mezu laburrak, argiak eta zehatzak adieraziko dituzte.
- Eguneratuta egongo dira eta erraz betetzeko modukoak izango dira



Aipatu denez, seinaleztatze premia egongo da arriskuen ebaluazio gauzatu eta jarduera-prebentiboa garatzerakoan zera aurreikusten bada: neurri tekniko, antolakuntza-neurri edota babes-kolektiboen bitartez ez dagoela arriskua erabat ezabatu edo behar beste gutxitzeko aukerarik, edota aipatutakoak osatzeko premia.

Baina, **ZER DA SEINALEZTATU BEHARREKOA?**

¿? ¿? ¿? ¿? ¿? ¿? ¿?

3.JARDUERA. Jarduera honen bitartez seinaleztatu beharreko zenbait egoera aztertuko dira. Horretarako, aurkezten diren egoerak aztertu eta zeure ustez zeintzuk EZ diren seinaleztatu behar esan behar duzu.



1	Norbanakoa babesteko ekipoak erabiltzea ezinbestekoa diren jarduera edo guneak.	
2	Egiten den aktibitate edo/eta barruan dauden instalazioengatik, berariaz-baimendutako pertsonak bakarri sartu daitezkeen guneak.	
3	Larrialdi-egoera eta/edo babeserako baliabideen berri langileei ematen dien seinaleak.	
4	Suteen aurkako ekipoak, ebakuazio-irteerak, ebakuazio-ibilbideak eta lehen sorospeneko ekipoak.	
5	Enpresan dauden ate eta leiho guztiak.	
6	Arriskuen ebaluazioa egin ondorengo jarduera-prebentiboaren plangintzan seinaleztatzeko beharra adierazten duten egoera guztiak.	

10. 4. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO SEINALEZTAPENAREN GUTXIENEO XEDAPENAK

Kasuan-kasu jarri beharreko seinale-mota, kopuru edota ubikazioa, seinalizazioa ahalik eta eraginkorrena izan dadin zehaztuko da. Horretarako, zenbait aldagai hartu behar dira kontuan:

4.JARDUERA. Jarduera honen bitartez kontuan izan beharreko atal garrantzitsuenak aztertuko ditugu. Irakurri ondo jarraian agertzen diren 8 esaldiak eta honakoa egin behar duzu: **EGIA** ala **GEZURRA** den erantzun:



1	Seinalearen ezaugarriak	E	G
2	Seinaleztatu beharreko arriskuak edo egoerak	E	G
3	Bete beharreko eremua	E	G
4	Langile afektatuen kopurua	E	G

Laneko segurtasun eta osasun seinaleztapenarekin izan dugun lehen hartueman honi bukaera emateko ebaluazio ariketa hau planteatzen dizugu jarraian. Ea zenbateraino barneratu dituzun erabilitako kontzeptu nagusiak. Ziur gaude gehienak ongi asmatuko dituzula!!

5.JARDUERA. Irakurri ondo jarraian agertzen diren 10 esaldiak eta honakoa egin behar duzu: **EGIA** ala **GEZURRA** den erantzun.



1	Seinaleztapenak arrisku ekiditen du.	EGIA	GEZURRA
2	Seinaleak prebentziorako eta babespenerako neurrien lagungarri dira eta inoiz ere ez dira haien ordezeko.	EGIA	GEZURRA
3	Gainontzeko prebentzio- zein babes-neurriak osatzekoa da segurtasuneko seinaleztapena.	EGIA	GEZURRA
4	Zenbat eta seinale gehiago jarri, hobe beti.	EGIA	GEZURRA
5	Seinaleak bereizi gabe erabltzeak kontrako eragina izan dezake.	EGIA	GEZURRA
6	Mezu laburrak, argiak eta zehatzak adieraziko dituzte.	EGIA	GEZURRA
7	Ez da hain garrantzitsua seinaleen kokapena.	EGIA	GEZURRA
8	Norbanakoa babesteko ekiporen bat erabili behar den jarduerak edota guneren batera sartzeko horiek erabiltze ezinbestekoa denean seinaleztatu egin behar da.	EGIA	GEZURRA
9	Arrisku jakin bakoitzaren seinalizazioa 3 eta 6 hilabete bitartean mantendu bear da.	EGIA	GEZURRA
10	Ezarritako seinaleak egoera onean daudela bermatzeko beharrezkoak diren aldizkako ikuskatze-programak ezarriko dira.	EGIA	GEZURRA



3

485/97 ERREGE DEKRETUA

11. 485/1997 ERREGE DEKRETUA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO SEINALEZTAPENAREN GUTXIENEO XEDAPENAK

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN 19. artikulua zera dio: babes-eginbeharra betetzeko, enpresaburuak bermatu beharko du, langile bakoitzak prestakuntza egokia izatea. Prestakuntza langile bakoitzaren lanpostu edo eginkizunaren arabera izan beharko da.

Bestalde, Lege horren 6.artikuluari aipatzen denez, kasuan kasuko erregelamenduen bidez arautuko dira gutxieneko betekizunak, langileen segurtasuna eta osasuna babesteko.

Horien artean lantokietan laneko segurtasun eta osasuneko seinaleztapen egokia dagoela bermatzen dutenak daude, beti ere neurri tekniko, antolakuntza-neurri edota babes-kolektiboen bitartez arriskua erabat ezabatu edo behar beste gutxitzerik ez dagoenean.



485/1997 ERREGE DEKRETUAK “LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO SEINALEZTAPENAREN GUTXIENEO XEDAPENAK” ezartzen ditu.

Bestalde, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak (LSHIN-INSHT) GIDA TEKNIKOAK argitaratu zuen, 485/1997 Errege Dekretuan ezarritakoen interpretazioa errazteko asmoz.

Aipaturiko ERREGE DEKRETU zein GIDA TEKNIKOAREN atal garrantzitsuenetarikoa aztertuko ditugu jarraian.

12. SEINALIZAZIO MOTAK

Irizpide ezberdinak aintzat hartuz, erabiltzen diren seinaleztapenen inguruko sailkapen bat baino gehiago ezarri daiteke.


Hona hemen erabilienak:

- ZENTZUARI DAGOKIONEZ
- ITXURARI DAGOKIONEZ

Adibidea: zentzuari dagokionez



Adibidea: itxurari dagokionez



12.1. ZENTZUARI DAGOKIONEZ.

SEINALEAK JASOTZEN DIREN ZENTZUARI DAGOKIONEZ (IKUSMENA, ENTZUMENA, USAIMENA, UKIMENA) HONAKO LAU DAUDE:



A

SEINALE OPTIKOAK

Seinaleak **begietatik** jasotzen direnean, **seinale optikoak** deitzen zaie.

Ohikoenak dira, zeren ikusmena baita gure zentzumenik sentikorrena. horregatik, sakonki aztertuko dira unitate didaktiko honetan.



B

HOTS-SEINALEAK

Seinaleak **belarrietatik** jasotzen direnean, **hots-seinaleak** deitzen zaie.

Hots-seinaleen eragin-eremua oso zabala da eta hori abantaila nabarmena da beste seinaleekiko. Berehala jasotzen diren komunikazio-igorketetan oinarritzen da.




Seinale horiek identifikatzen errazak izan behar dute eraginkorrak izateko; garrantzi handiko kodeen arabera, hain zuzen ere. Arriskuen arabera kode jakin bat erabiltzen da.

C

USAIN-SEINALEAK

Seinaleak **sudurretik jasotzen direnean, usain-seinaleak** deitzen zaie.

Usaimen-neuronak estimulatzeko zenbait produktuk duten ezaugarri usaintsuak aprobetxatzen dira. Adibiderik ohikoena butano-bonbonena da. butanoari gas usaintsu bat eransten zaio, gas-ihesik egonez gero, detektatu ahal izateko.



D

UKIMEN-SEINALEAK

Seinaleak **ukimenetik jasotzen direnean, ukimen-seinaleak** deitzen zaie.

Usaimen-seinaleak bezala, kasu berezietan erabiltzen dira hauek ere.


Gure ukimen-ahalmenaz baliatuta, ukimen-sentsazio desberdinak nabari ditzakegu azal-motaren arabera.



12.2. ITXURARI DAGOKIONEZ

SEINALEEN ITXURARI DAGOKIONEZ HONAKO LAU DAUDE:


- ✚ PANEL ERAKO SEINALEAK.
- ✚ ARGI- ETA HOTS-SEINALEAK.
- ✚ AHOZKO KOMUNIKAZIOA.
- ✚ KEINUZKO SEINALEAK.



Aipatutako guztiak banaka-banaka hurrengo ataletan aztertzen joango bagara ere, sarrera gisa, honako jarduera hau proposatzen dizugu:



6.JARDUERA. Jarraian seinale-mota ezberdinen argakiak eta izenak ikusiko dituzu. Batabestearekin lotzea eskatzen zaizu:


1		PANEL ERAKO SEINALEAK (PS)	
2		ARGI-SEINALEAK (AS)	
3		HOTS-SEINALEAK (HS)	
4		AHOZKO KOMUNIKAZIOA (AK)	
5		KEINUZKO SEINALEAK (KS)	

13. SEGURTASUN-KOLOREAK

Koloreek, behar den mezua adierazteko aukera ezinhobea ematen dute, ikusleek, oso erraz lotzen baitituzte koloreak eta esanahiak. Koloreen inguruko guztia 485/97 Errege Dekretuan dago araututa.

Atal honetan gehien erabiltzen diren koloreak identifikatuko dira, horien esanahiak eta ezaugarriak ere aztertuko direlarik. Lehenik, aurrerantzean sarritan ibiliko ditugun kontzeptu hauek argitzea komeni da:

- ❖ **SEGURTASUN-KOLOREA (SK)**
- ❖ **KONTRASTE-KOLOREA (KK)**
- ❖ **IKURRAREN KOLOREA (IK)**



7.JARDUERA. Esan nori dagokion jarraian aipatzen den definizio bakoitza:



1	Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako esanahi zehatz bat egotzitako kolorea.	SK	
2	Ikusgaitasuna hobetu eta edukia nabarmentzeko helburuarekin, segurtasun-kolorea osatzen duen beste kolore bat.	KK	
3	Seinalean bertan kokatzen den irudia eta egoera bat deskribatu edota betebeharrak adierazten duena.	IK	

SEGURTASUN-KOLOREA (SK) // KONTRASTE-KOLOREA (KK) // IKURRAK EDO PIKTOGRAMAK (IK).

Kolore guztiek ez dute balio segurtasun alorrean erabili ahal izateko, sentsibiltate ezberdinak eskaintzen baitituzte. Araututa daude egoera bakoitzari dagokion segurtasun-kolorea.

Jarduera honen bitartez SEGURTASUN-KOLOREAK eta horien ezaugarriak aztertuko ditugu.

8.JARDUERA. Aukerako aurkezten den kasu bakoitzari dagokion segurtasun-kolorea. Kolore jakin bat kasu bakar bat baino gehiagorentzako balio dezake.



1	Debekua	Berdea (B)	
2	Arriskua – Alarma		
3	Suteen aurkako ekipoak	Horia edo laranja (h)	
4	Ohartarazpena		
5	Betebeharra	Urdina (U)	
6	Salbamendu edo sorospena	Gorria (G)	
7	Normaltasunera itzulera		

SEGURTASUN-KOLOREAK eta horien ezaugarriak ikasi ondoren, erabilerari buruzko ezaugarriak aztertzerako pasatuko gara jarraian.

9.JARDUERA. Lehenengo zutabean segurtasun-kolore bakoitzare esanahia agertzen da. Bigarren zutabean, aldiz, erabilpenari buruzko ohar batzuk ikus ditzakezu.



Jarduera, zutabe biak behar bezala erlazionatzean datza. Horretarako eratutako konbinaketak jarri behar dituzu eskumako zutabean.

Adibidez: **ERANTZUNA 1-3**

KOLOREA - ESANAHIA		ERABILPENA		ERANTZUNA
1	Debekua	1	Gelditzeko seinaleak, larrialdi-egoeran deskonektatu beharreko gailuetan ...	
2	Arriskua – Alarma	2	Normaltasunera itzulera...	
3	Suteen aurkako ekipak	3	Identifikazio eta kokapenerako ...	
4	Ohartarazpena	4	Larrialdi ate eta irteerak, salbamenduko postuak ...	
5	Betebeharra	5	Arriskua ohartarazteko ...	
6	Salbamendu edo sorospena	6	NBE eramateko beharra ...	
7	Normaltasunera itzulera	7	Eragiketa arriskutsuak...	

Behar bada ez duzu argi izango zenbateraino asmatu duzun. Baina, lasai, unitate didaktikoaren bukaeran daude emaitza guztiak. Dena den, hurrengo ariketetan ere koloreekin jardungo dugunez, 8. eta 9. jardueren ingurukoak argi izaten lagunduko dizun taula bat aurkezten da jarraian.

KOLOREAREN ESANAHIA	ERABILPENA	ERANTZUNA
GORRIA	Debekua	Eragiketa arriskutsuak...
	Arriskua – Alarma	Gelditzeko seinaleak, larrialdi-egoeran deskonektatu beharreko gailuetan ...
	Suteen aurkako ekipak	Identifikazio eta kokapenerako ...
HORIA LARANJA	Ohartarazpena	Arriskua ohartarazteko ...
URDINA	Betebeharra	NBE eramateko beharra ...
BERDEA	Salbamendu edo sorospena	Larrialdi ate eta irteerak, salbamenduko postuak ...
	Normaltasunera itzulera	Normaltasunera itzulera...

13.1. KONTRASTE-KOLOREA ETA IKURRAREN KOLOREA

Ikusgaitasuna hobetu eta edukia nabarmentzeko helburuarekin, segurtasun-kolorea osatzen duen beste kolore bat erabiltzen da, KONTRASTE-KOLOREA, alegia.

Erabilpen-iripideak eta gainontzeko xehetasunak 485/1997 Errege Dekretuan zehzten dira.

Jarduera honen bitartez KONTRASTE- eta IKURREN-KOLOREEN inguruan ezarrita dauden irizpideak jorratuko dira:

10. JARDUERA. Zein da jarraian aipatzen diren SEGURTASUN-KOLORE bakoitzari dagokion KONTRASTE-KOLOREA eta IKURRAREN KOLOREA?



	Segurtasun-kolorea	Kontraste-kolorea	Ikurraren kolorea
1	GORRIA	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina
2	HORIA	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina

3	BERDEA	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina
4	URDINA	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina	Zuria Beltza Gorria Horia Urdina

Jardueraren emaitza guztiak unitate didaktikoaren bukaeran badaude ere, adibide erreal hauen bitartez gai izango gara egindakoa zuzentzeko.

1	2	3	4

14. PANEK ERAKO SEINALEAK

Seinale horien inguruko guztia 485/97 ERREGE DEKRETUAN dago zehaztuta. Lan munduan gehien erabiltzen diren seinaleak dira.

Hona hemen definizioa: “kolore, ikur eta forma geometrikoak konbinatuz, informazio jakin bat ematen duen seinalea. Horien guztien konbinazioak zehazten du seinalearen esanahia”.

14.1 OINARRIZKO XEHETAPENAK

Panel erako seinaleek bete beharreko ezaugarri nagusiak hauexek dira:

- Los pictogramas serán lo más sencillos posible, evitándose detalles inútiles para su comprensión.
- Las señales serán de un material que resista lo mejor posible los golpes, las inclemencias del tiempo y las agresiones medioambientales.
- Las dimensiones de las señales, así como sus características colorimétricas y fotométricas, garantizarán su buena visibilidad y comprensión.




14.2 ERABILERARI BURUZKO ARGIBIDEAK.

Erabilerari dagokionez, honakoak izan behar dira kontuan:

- Seinaleak, kontuan hartuta izan daitezkeen trabak, garaiera eta leku egoki batean jarriko dira ikus-angeluaren ikuspuntutik, seinalea jarri behar zaion arriskuaren edo objektuaren ondo-ondoan.
- Seinaleak dauden tokiak argiztapen egokia izan behar dute. Argiztapen orokorra nahikoa ez bada, argiztapen osagarria jarriko da edo kolore fofforeszenteak erabliko dira.
- Seinaleen eraginkortasuna jaistea galarazteko, ez da erabiliko elkarren hurbileko seinale gehiegirik.
- Seinaleak kendu egin beharko dira, haiek jartzea justifikatzen zuen arrazoia desagertzen denean.

14.3 FORMA GEOMETRIKOAK

Kolore desberdinak bereizteko zailtasuna duten pertsonak badirela kontuan harturik, kolorez gainera, forma geometriko desberdinak erabiltzen dira mezu jakin bakoitzaren adierazgarri.



Hurrengo jardueraren bitartez **forma geometrikoak** eta **segurtasun-koloreen** lotura aztertuko dugu.




11.JARDUERA. Lotu jarraian ematen diren kasuak dagokien segurtasun-kolore eta forma geometrikoekin:



- ❖ (A) DEBEKUA
- ❖ (B) BETEBEHARRA
- ❖ (C) ARRETA
- ❖ (D) ARRISKUA
- ❖ (E) SUTEEN AURKAKO EKIPOAK
- ❖ (F) INFORMAZIOA
- ❖ (G) EBAKUAZIOA.
- ❖ (H) LEHEN SOROSPENAK
- ❖ (I) NORMALTASUNERA ITZULERA
- ❖ (J) EZ DAGOKIO

OHARRAK:

- 1. Konbinaketa guztiak ez dira baliogarriak (kasu horietan EZ DAGOKO jarri behar da).
- 2. Konbinaketa batzuetan, aldiz, emaitza baino gehiago egon daiteke.

SEGURTASUN-KOLOREA	FORMA GEOMETRIKOA		
	1	2	3
			
GORRIA			
HORIA			
BERDEA			
HORIA			

14.4 SEINALEEN NEURRIAK.

Seinaleen neurriak erabakitzeko UNE 1011 arauen A serian zehazten diren ezaugarriak kontuan izan.

50 m-ko distantzia arte dauden seinaleentzat, honako formula erabili behar da.

$$S \geq L^2 / 2000$$

Honakoak izanik,

S = seinalearen azalera m².



L = seinalea ikus eta uler daitekeen neurria.

14.5 SEINALE-MOTAK.



Ematen den informazioaren arabera, panel erako seinaleen artean honako blokeak bereizten dira:

- **OHARTARAZPEN-SEINALEAK.** Arrisku egoeren berri ematen duten seinaleak dira.
- **DEBEKU-SEINALEAK** Arriskua sor ditzaketen jokaeren debekua adierazten duten seinaleak dira.
- **BETEBEHAR-SEINALEAK.** Jokabide zehatz bat betetzeko derrigortasuna adierazten duten seinaleak dira.
- **SUTEEN AURKAKO EKIPOEN SEINALEAK.** Suteei aurre egiteko ekipoen kokapena adierazten duten seinaleak dira.
- **SALBAMENDU-SOROSPEN SEINALEAK.** Lehen sorospen edota larrialdietarako ate zein ibilbideak adierazten dituzten seinaleak dira.



Aipatutako 485/1997 Errege Dekretuan zehazten dira baita ere seinale-mota bakoitzaren koloreen distribuzioa eta baita bakoitzaren azaleraren portzentaiak.

Jarduera honen bitartez sakonago aztertuko dugu gai hau.

12. JARDUERA. Zein da aipatzen den seinale-mota bakoitzaren segurtasun-koloreak izan behar duen gutxiengo azalera?






Debeku-seinaleak	(A) ≥ 25 %	
Betebehar-seinaleak	(B) ≥ 35 %	
Ohartarazpen-seinaleak	(C) ≥ 50 %	
Suteen aurkako ekipoen seinaleak	(D) ≥ 70 %	
Salbamendu-sorospen seinaleak		

14.6 SEINALE-MOTA, FORMA GEOMETRIKO ETA KOLOREEN ARTEKO ERLAZIOA









485/1997 ERREGE DEKRETUAN zehazten dira seinale-mota bakoitzari dagozkion forma geometrikoak, segurtasun-koloreak, kontraste-koloreak, ikurraren koloreak, eta abar.

Jarraian honako SEI taula aurkezten dira:

- **1.TAULA:** Seinale-mota bakoitzari dagozkion forma geometrikoak, segurtasun-koloreak, kontraste-koloreak, ikurraren koloreak, eta abar.
- **2.TAULA:** OHARTARAZPEN SEINALEAK (adibideak).
- **3.TAULA:** DEBEKU-SEINALEAK (adibideak)
- **4.TAULA:** BETEBEHAR SEINALEAK (adibideak).
- **5.TAULA:** SUTEEN AURKAKO EKIPOEN SEINALEAK (adibideak).
- **6.TAULA:** SALBAMENDU-SOROSPEN SEINALEAK (adibideak).

SEINAL-MOTA	FORMA GEOMETRIKOA	PIKTOGRAMAREN KOLOREA	HONDOKO KOLOREA	ERTZAREN KOLOREA	BANDAREN KOLOREA
OHARTARAPENA 	TRIANGELUA	BELTZA	AMARILLO	BELTZA	-
DEBEKUA 	BOROBILA	BELTZA	ZURIA	GORRIA	GORRIA
BETEBEHARRA 	BOROBILA	ZURIA	AZUL	ZURIA EDO URDINA	-
SUTEEN AURKAKO... 	LAUKIA EDO LAUKIZUZENA	ZURIA	GORRIA	-	-
SALBAMENDU... 	LAUKIA EDO LAUKIZUZENA	ZURIA	BERDEA	ZURIA EDO BERDEA	-

OHARTARAZPEN-SEINALEAK

			
Arriskua: Materia sukoiak	Arriskua: esekiroko materialak	Arrisku elektrikoa	Maila ezzberdinetik erortzeko arriskua
			
Arriskua: Materia lehergarriak	Arriskua: Arrisku biologikoa	Arriskua: Materia korrosiboak	Harrapatzeko arriskua

DEBEKU-SEINALEAK

Baimenik gabeko pertsonak ezin dira sartu	Eskularruak ezin dira erabili	Ezin dira eskorga automotoreak sartu	Debekatura gruaren azpitik pasatzea
Oinezkoentzako debekatua	Debekatuta pertsonak eramatea eskorga automotorean	Debekatuta zama esekiaren azpian egotea	Ez erabili igogailua sutea denean









BETEBEHAR-SEINALEAK

			
Entzumena derrigorrean babestu	Ikusmena derrigorrean babestu	Oinak derrigorrean babestu	Burua derrigorrean babestu
			
Eskuak derrigorrean babestu	Arnas-bideak derrigorrean babestu	Erabili ondoren zarratu atea	Zarratuta mantendu

SUTEEN AURKAKO EKIPOEN SEINALEAK

			
Su-itzalgailuak	Hur-hartune hornitua: Jarraitu beharreko norantza	Eskuzko pultsadorea	Suteen aurkako materialeak
			
Ohartarazle akustikoa	Jarraitu beharreko norantza	Su-itzalgailua: Jarraitu beharreko norantza	Sutea dagoenean erabiltzeko kuboak

SALBAMENDU EDO SOROSPEN SEINALEAK

			
Segurtasun-dutxa	Larrialdi irteera	Izuaren kontrako barradun atea	Larrialdi irteera: Jarraitu beharreko norantza
			
Camilla	Lehen sorospenak	Begiak garbitzeko iturria	Larrialdietako telefonoa: Jarraitu beharreko norantza

JARDUERA PRAKTIKOA-1.

Jarduera praktiko honen bitartez zeure enpresa edo ikastetxeko suteen aurkako ekipoen seinalizazioa aztertuko dugu. Ez dizugu eskatuko eraikineko instalazio guztiak ikustatzeko, nahikoa izango da zeure ohiko solairua edota sekzioa aztertzea. Erantzun ondoko galderei:



- Su-itzalgailuek badute dagokien seinalerik?
- Egongo balira, behar bezala seinaleztatuta daude ur hartune ekipatuak?
- Egongo balira, behar bezala seinaleztatuta daude eskuzko pultsadoreak?
- Behar bezala seinaleztatuta daude ohartarazle akustikoak?
- Ikuspenari dagokionez, uste duzu guztiek kokapena egokia dela?

Ikuskatu duzun gunen edo solairuan suteen aurkako ekiporen bat seinaleztatu gabe ikusi edota egoera okerrean dauden bat lokalizatu baduzu, jakinarazi eiozu irakasleari (ikastetxearen kasuan) edota zeure arloko arduradunari (enpresaren kasuan) dagokionari bideratu ahal izateko.

Zeure aisialdiko momentuetan, aipatutako suteen aurkako ekipoa ikusteko aukera izango duzu, eta seguruenik, hainbat kasutan, seinaleztatu gabe egongo dira. Ziur konturatuko zarela hurrengoan!!


JARDUERA PRAKTIKOA-2.

Jarduera praktiko honen bitartez zeure enpresa edo ikastetxeko larrialdietako seinaleak aztertuko dugu. Oraingoan ere ez diugu eskatuko eraikineko instalazio guztiak ikustatzeko, nahikoa izango da zeure ohiko solairua edota sekzioa aztertzea.



Eraikin bat bizkor ebakutzeko premia eragiten duen larrialdi-egoera ematen denean, gauzak behar bezala landuta badaude, arduradun bakoitzak ezarritako zereginak beteko lituzke, eta ikasle edota langile bakoitzak zera egin beharko luke soilik:

- Ikasgela edo dauden tokitik atera.
- Aurreikusitako kanpoko batzeko puntura joan, aurretik ezarritako ibilbidea jarraituz.



Ez dizugu eskatuko autobabes-plana aztertzea edo baloratzea. Irakaslearen laguntzarekin, atera zaitez ikasgelatik eta aurreikusitako kanpoko batzeko puntura joan, aurretik ezarritako ibilbidea jarraituz.

Ibilbidean honakoak aztertu eta baloratu behar dituzu:

- Ikasgelatik atera bezain pronto ebakuazio potentzial batean jarraitu beharreko ibilbidea hasteko seinalerik badago?
- Nahikoak dira eta kokapen egokia dute ebakuazio potentzial batean jarraitu beharreko ibilbidea islatzen duten seinaleak?
- Argi-indar mozketarik balego, arazorik gabe helduko zinatekela uste duzu ezarritako kanpoko batzeko puntura?

Jarraian gelara itzuli eta bildutako informazioa konpartituko duzu klase-lagunekin irakasleak antolatuko duen eztabaidan.

Ausartuko zinateke, mentalki bada ere, ariketa berdina egiten hurrengo zinemara edota merkatal-zentruren batera joaten zarenean?. Seguruenik era egokian seinaletatuta egongo dira, izan ere, konkurrentzia publikoko lokal edo eraikinak dira eta kontrol zorrotzak jasaten dituzte.



JARDUERA PRAKTIKOA-3.

Gurean zein inguruko herri guztietan era gutietako obrak ikusten ohituta gaude jadanik. Normalean, behar bezala mugatuta egoten dira gehienak eta soilik baimendutako pertsonak sartzen dira barrura. Gehienetan, argazkiak ikus daitezkeen moduko kartelak egoten dira, besteak beste, arrisku aipagarrienak eta erabili beharreko norbanakoa babesteko ekipak irudikatzen direlarik seinale batzuen baitartez.



Kasu honetan honako seinaleak agertzen dira kartelean (goitik behera eta ezkerretik eskumara):

- Bururako nahitaezko babesgarria.
- Belarrietarako nahitaezko babesgarria.
- Begietarako nahitaezko babesgarria.
- Eskuetarako nahitaezko babesgarria.
- Oinetarako ahitaezko babesgarria.
- Arnasbideetarako nahitaezko babesgarria.
- Derrigorrez hertzak azabatzea.
- Erorikoen aurkako nahitaezko banako babesgarria.
- Arriskua: esekitako kargak.
- Arriskua: makina astunak.
- Debekatuta baimenik gabeko pertsonak sartzea.

Kasu honetan ez dizugu ohiko jarduera bat planteatzen eta eskatzen dizuguna zera da: seguruena obraren bat izango duzunez zeure herrian, tarte bat duzunean bertara hurbildu zaitez, sarreran egongo den seinaleen panela aztertu eta zeure eritziz bertan islatzen diren seinaleak nahikoak diren edo ez baloratu. ANIMO!!

15. ARGISEINALEAK

Seinale horien inguruko guztia 485/97 Errege Dekretuaren IV. Eranskinean dago zehaztuta.

Honela definitzen dira: *“Argi-seinaleak material garden edo zeharrargitsuek osatutako gailu batek emititzen ditu; material horiek atzetik edo barrutik argizatuta daude, halako moldez non berez gainazal argitsu bat dela ematen baitu”.*

La señal luminosa contempla aquellos elementos que, por su situación, dimensiones y otras particularidades, deben estar convenientemente señalizados, incluso de noche. Básicamente estos dispositivos actúan excitando una o varias lámparas mediante tensión apropiada.



Eraginkorrak izan daitezen, erabilerari buruzko arau batzuk bete behar dituzte. Jarraian aipatzen den jarduera honekin, arau adierazgarrienetarikoa aztertuko ditugu:

13. JARDUERA. Irakurri ondo jarraian agertzen diren 8 esaldiak eta honakoa egin behar duzu: **EGIA** ala **GEZURRA** den erantzun:



1	Argizko seinaleak zabalduetako argiak ingurunearekin alderatuta argi kontraste egokia sortu behar du, aurreikusitako erabilera baldintzen arabera.	E	G
2	Haren intentsitateak hauteman egiten dela ziurtarazi egin behar du, baina itsutzerik eragin gabe.	E	G
3	Seinale batek igorritako azalera argitsua edozein koloretakoa izan daiteke, beti ere uniformea bada.	E	G
4	Seinale batek igorritako azalera argitsuak ezin du piktogramarik izan.	E	G
5	Gailu batek argi seinale jarraia edo intermitentea emateko gaitasuna balu, jarraiarekin alderatuz, arrisku maila handiagoa islatzeko erabiliko da intermitentea.	E	G
6	Ezin dira erabili aldi berean konfusioa eragin ditzaketen bi seinale, ezta argi-seinale bakar batik ere inguruan antzeko beste argidun emisiorik balego.	E	G
7	Argi-seinale intermitentea erabiltzen bada, horren luzera eta frekuentziak mezuaren interpretazio zuzena ahalbideratu behar du, gainontzeko argi-seinale posibleekin konfusioak ekidituz.	E	G
8	Arrisku larriak islatzeko erabiltzen diren argi-seinaleek errebisio bereziak jasan behar dituzte edo bestela, bonbila bereziak izan behar dituzte.	E	G

15.1 SEÑALES FOTOLUMINISCENTES.

Eraikin bat bizkor ebakutzeko premia eragiten duen larrialdi-egoera ematen denean, zenbait kasutan behintzat, zaila izaten da argi eta garbi pentsatzea eta astiro jardutea. Bestalde, behar bezala seinalizatuta ote daude eraikin guztietako ebakuazio-ibilbideak?

Jakina, ezinezkoa da kasu guztietan horrela izango dela bermatzea.

Eta nola dago gai hau zeure enpresa edo ikastetxean?

Momentuz horrela utziko dugu, aurrerago izango dugu balorazio bat egiteko aukera.

Argi-indarraren mozketarik balego, seguruenik, barruan dauden pertsona guztiak ez dute aukerarik izango behar bezala:

- Irteera bilatzeko.
- Pasabideetatik mugitzeko kolpatu gabe.
- Eskailerak bilatzeko.
- Zein solairutan dauden jakiteko.
- Irteerak bilatzeko.
- Larrialdiak jakinarazteko gailuak lokalizatzeko.
- Lehen sorospeneke ekipoak bilatzeko.
- Suteei arre egiteko ekipoak (su-itxalgailuak, ur-hartune hornituak, eta abar.) bilateko.

Argi-indarraren etete kasuetan, larrialdi-irteera eta orokorrean ebakuazioarekin lotutako seinale fotoluminiszentek, laguntza handia eskaintzen dute hobeto orientatu eta irteerak bilatzeko.

- Baina, nola funtzionatzen dute produktu fotoluminiszenteak?

Produktu fotoluminiszenteak energia xurgatzen dute lehenik eta gero, gunea iluntzen denean, energia hori liberatu egiten da argia emanaz.

Berezitasun horrek, materiale horien gain jndearen konfidantza handia izatea dakar, oso praktikoak baitira. Horrezgain, ez dute elektrizitatearen beharrik, instalazio-kostuak baxuak dira eta ea ez dute mantentze-lanen beharrik.



- Eta, zeintzuk dira seinale fotoluminiszenteak erabiltzea komeni diren kasuak?

Printzipioz, seinale mota hauek irteerak, ebakuazio-ibilbideak, suteen aurkako ekipoak zein lehen sorospenetako ekipoak seinaleztatzeko erabiltzea komeni da.

Hau da, erabateko iluntasuna dagoenean bereziki lokalizatzea garrantzitsua den gauza oro.

Jarraian seinale fotoluminiszenteak erabiltzea komeni diren zenbait kasu aipatzen dira:

- Suteen aurkako ekipoak, ebakuazio-ibilbideen planoak, zerbitzuko instalazio ezberdinak mozteko balbula edo etengailu garrantzitsuak, eta abar.
- Ebakuazio-ibilbidean zehar egon daitezkeen oztopo edo arrisku-egoerak ikusiarazteko eta ondorioz, lesioak ekiditeko.

- Toki estrategikoetan jarritako “Hemen zaude” plano fotoluminiszenteak lagungarriak dira eraikina ondo ezagutzen ez dutenentzako.
- Pasabideetako beheko aldean jarri daitezkeen seinale edo gezi fotoluminiszenteak oso eraginkorrak dira ke asko dagoen kasuetarako.
- Zoruan jartzen diren norabideko seinaleak irteera era erraz eta intuizioz bilatzea bideratzen dute: geziak jarraitzea baino ez dago.
- Suteei aurre egiteko ekipoak eta horiek bilatzeko oharrak argi seinaleztatuta egon behar dute, larrialdi-egoera batean azkartasunarekin jokatu ahal izateko.
- Irteera-ateak eta larraildietako irteerak erraz bilatzeko aukera izateak, bizitza eta heriotzaren desberdintasuna marka dezake.
- Irteeretara eramaten ez duten ateak argi seinaleztatuta behar dira, nahasketak sahiestu eta korridore edo irteera okerrak ez hartzeko.
- Barandetan, eskailera-maila edota kontrameiletan ikuspen altuko seinaleak jartzeak ebakuazio potentzial batean istripuak prebenitzen laguntzen du.



16. HOTS-SEINALEAK

Seinale horien inguruko guztia 485/97 Errege Dekretuaren IV.Eranskinean dago zehaztuta.

Honela definitzen dira: “Gizaki-ahotsaren edo ahots sintetikoaren esku-hartzerik gabe kodifikatutakoak dira, hala nola sirenak, huste- edo sute-alarmak”.

Beste seinaleekin alderatuz, abantaila handia daukate era horretako seinaleek, jarduera-erradio zabalagatik batez ere. Seinale horiek identifikatzen errazak izan behar dute eraginkorrak izateko; garrantzi handiko kodeen arabera, hain zuzen ere.



Eraginkorrak izan daitezten, erabilerari buruzko arau batzuk bete behar dituzte. jarraian aipatzen den ariketa honekin, arau adierazgarrienetarikoa aztertuko ditugu.

14. JARDUERA. Irakurri ondo jarraian agertzen diren 8 esaldiak eta honakoa egin behar duzu: **EGIA** ala **GEZURRA** den erantzun:



1	Aldez aurretik bere esanahia ezagutu behar dira	E	G
2	Inguruko zarata maila baino soinu maila handiagoa izan beharko dute	E	G
3	Hots-seinale ezberdinak aldi berean erabiltzea gomendatzen da.	E	G
4	Ekintza jakin bakar bat egiteko beharra adieraziko dute	E	G
5	Gailu bat tonu aldakor edo intermitenteak igortzeko gai bada, lehentasuna izango du tonu jarraituarekin alderatuz, arrisku maila handiagoko adierazi behar denean.	E	G
6	Ebakuaziorako soinua intermitentea izango da.	E	G
7	Ez da hots-seinalerik erabili behar, inguruko zarata handiegia denean.	E	G
8	Hots-seinalearen emisioa bukatzen denean, premia balego berriro abian jartzeko neurriak hartuko dira berehala.	E	G

Eremu zarratu bateko edozein tokian hots-seinale bat entzunteko, soinu maila, zarata giroa baino, gutxienez, %10 handiagoa izan behar da. Bestalde, ez da gomendatzen 120 dB (A) gainditea oso aldi motzerako.

Seinale optikoak behar bezala jasotzeko arazoak dituztenen kasuetarako egokiak dira hots-seinaleak, besteak beste, itsuentzako edota ikusmen txikiagoa duten pertsonentzako kode jakin batzuetako soinu-semaforoak (intermitenteak berdearekin eta areagoku gorria ateratzeke dagoenean).

JARDUERA PRAKTIKOA-4. Jarduera honen bitartez zeure enpresa edo ikastetxeko hots-seinaleen instalazioa aztertuko dugu. Horretarako, instalazioaren inguruko informazioa bildu beharko duzu lehenik, eta gero, ondoko galde hauek erantzun:

- Aztertu solairuz solairu, bozgorailuen distribuzioa eta kokapenak.
- Zeure ustez nahikoak dira daukazuen bozgorailu kopurua azalera guztia behar bezala kubritzeko?.
- Zeure ustez egokiak dira daukazuen bozgorailuen kokapenak igorritako mezuak era eraginkorrean heltzeko enpresako langile guztiei edota ikastetxeko ikasle zein irakasle guztiei?.
- Zenbat kanpoko alarma (suteak) daude zure enpresa edo ikastetxean?.
- Badakizu daukazuen hots-seinaleen instalazioak berariazko elikatze iturria duen, eta, horrela, nahiz eta instalazio elektriko orokorra eten, elikatuta jarraitzen duten?

Eskatutako informazio guztia lortzen duunean zeure irakaslearekin kontrastatzea komeni da, ikastetxearen kasuan, eta enpresaren kasuan, aldiz, zeure arduradunarekin.

17. AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Seinale horien inguruko guztia 485/97 Errege Dekretuaren V.Eranskinean dago zehaztuta.

AHOZKO KOMUNIKAZIOAK honako ezaugarriak bete behar ditu:

- Igorle baten eta hartzaile baten edo batzuen artean gertatzen dira, testu laburren, esaldien, hitz multzoen edo hitz isolatuen bitartez.
- Ahalik eta laburrenak, soilenak eta argienak izan beharko dute.
- Esatariaren ahozko gaitasuna eta entzuleen entzumen ahalmena nahikoak izan behar dira ahozko komunikazio segurua bermatzeko.
- Ahozko komunikazioa zuzena (giza ahots zuzenaren erabilera) edo zeharkakoa (giza ahots edo ahots sintetikoa bitarteko egokiekin hedatuta) izan daiteke.



17.1 ERABILERARI BURUZKO ARAUAK

Eragindako pertsonak erabilitako hizkuntza ondo menperatu behar dute, horrela bermatuko baita mezuak ondo eman eta ulertzea, egin beharrekoak era egokian bideratzeko.

Antzeko fonetika duten hitzen erabilera ekidin behar da. Adibidez, maniobren hasiera edo bukaerarako ez dira erabiliko “DALE-VALE”, “YA-VA” eta antzekoak, izan ere, urrutitik entzunda, nahasteak sor ditzakete



Ahozko komunikazioa keinuzko seinaleak ordezkatzeko edo osatzeko erabiltzen bada, honako hitzak erabiliko dira:

A	HASIERA	AGINTEA HARTZEA
B	GELDI	GELDITZEA
C	AMAIERA	OPERAZIOAREN AMAIERA
D	ALTXATZEA	ZAMA ALTXATZEA
E	JAISTEA	ZAMA JAISTEA
F	ARRISKUA	LARRIALDIKO GELDIALDIA
G	ARIN	MUGIMENDUAK ARIN-ARIN EGITEKO PREMIA
H	AURRERANTZ ATZERANTZ ESKUMARANTZ EZKERRERANTZ	MUGIMENDUAREN NORANZGOA ZEHAZTEA

ADIBIDEA

Ondoren erakusten da, adibide moduan, megafonia-sistemeekin hornituta dagoen bulegoen eraikin bat. Identifikatzean datza. Kontrol-zentroko megafoniatik transmititutako ahozko komunikazioak identifikatzean datza.

Jarraian aipatzen diren aukerak eskaintzen duen kodetutako mezuen grabazio- eta erreprodukzio-sistema dagoela kontuan izango da: beste horrenbeste larrialdi-egoera desberdinetan erabiltzeko bost mezu grabatzeko aukera ematen du eta mezu bakoitzarentzako grabatzeko ekipoaren muga 10 segundukoa da:

- 1.ESALDIA: LARRIALDI ABISUA. ERAIKINETIK IRTEN ZAITEZTE HURBILEN DAGOEN EBAKUAZIO-BIDETIK.
- 2.ESALDIA: LARRIALDI ABISUA. ERAIKINETIK IRTEN ZAITEZTE HURBILEN DAGOEN EBAKUAZIO-BIDETIK. IRTERA NAGUSIA BLOKEATUTA DAGO.
- 3.ESALDIA: LARRIALDI ABISUA. SALGAN DEL EDIFICIO POR LA VIA DE EVACUACION MAS PROXIMA. GARAJEAREN IRTEERA BLOKEATUTA DAGO.
- 4.ESALDIA: LARRIALDI ABISUA. ERAIKINETIK IRTEN ZAITEZTE HURBILEN DAGOEN EBAKUAZIO-BIDETIK KAFETEGIKO IRTEERA BLOKEATUTA DAGO.

- 5.ESALDIA: LARRIALDI ABISUA. ERAIKINETIK IRTEN ZAITEZTE HURBILEN DAGOEN EBAKUAZIO-BIDETIK. ALBOKO ESKAILERA BLOQUEATUTA DAGO.

Laneko egoera normal baten baino 10 dB(A) handiagoko soinu-maila bermatzea gomendatzen da. Hondoko soinu-maila baino 10 dB(A) handiagoa izango da baita ere. Inola ere ez da gaindituko 100 dB(A)ko muga.

Emisio-sistemak hurrengo aurrez ikusi beharko luke: larrialdia kudeatzen duen pertsonak aipatutako ebakuazio-mezuren bat aktibatzen badu, megafonia-zirkuituan sar daitekeen beste edozein mezuarekiko lehentasuna izan beharko du.

Aukeratutako larrialdi mezua hautemate ona lortzeko, bi segundo inguruko iraupen motzeko kodetutako seinale akustiko batekin has liteke emisioa. Emisio osoa bi edo hiru aldiz errepika litzake, tarteka bananduta, hiru segundoz behin.



ZOPA-LETRA 1

Ea bilatzen dituzun LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO SEINALEZTAPENAREN alorrean erabiltzen diren 10 hitz. Ea bost minuturen barruan bilatzen dituzun!!

K	A	O	K	Z	U	N	I	E	K
A	K	U	S	T	I	K	O	A	B
U	K	R	U	Y	S	G	P	K	O
A	A	D	I	B	O	B	V	N	R
E	O	I	S	A	E	A	D	I	O
R	K	N	Q	P	I	R	Q	S	B
O	I	A	I	R	I	R	D	R	I
L	T	H	O	V	O	P	R	E	L
O	P	H	V	I	L	W	V	O	A
K	O	N	T	R	A	S	T	E	G

Bakarren bat geratzen bazaizu bilatzeke, lasai, liburuaren amaieran bilatuko dituzu erantzunak.

ZOPA-LETRA 2


Ea bilatzen dituzun LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO SEINALEZTAPENAREN alorrean erabiltzen diren 10 hitz. Ea bost minuturen barruan bilatzen dituzun!!

E	T	I	K	E	T	A	H	K	E
C	I	D	J	T	O	B	E	A	R
F	U	S	U	K	O	I	A	O	O
R	P	F	I	Ñ	H	J	Y	K	A
G	A	S	A	K	V	O	U	I	L
I	N	R	A	P	G	R	H	X	E
N	E	U	T	R	O	A	I	O	A
F	L	U	I	D	O	A	K	T	K
O	A	P	F	E	T	J	L	O	A
M	Y	M	P	A	J	N	A	R	F

